



IXA TALDEAREN ETA ELHUYARREN EKIMENA

# Xuxen 5 euskarazko zuzentzaile berria sarean da

4 4



ELHUYAR

**Actualizado** 2015/11/10 13:41:58 CET

DONOSTIA, 10 (EUROPA PRESS)

**Xuxen 5** zuzentzaile ortografiko eta gramatikal berria aurkeztu da astearte honetan Usurbilen (Gipuzkoia), Elhuyarren egoitzan egindako ekitaldian. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) **IXA Taldeak** eta **Elhuyarrek** eman dituzte zuzentzaile berriaren xehetasunak.

Leire Cancio Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia, Xabier Artola EHUko Ixa Taldeko ordezkaria eta Itziar Cortés Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia unitateko kidea izan dira tresna berria aurkezteko arduradunak.

Bi hamarkada igaro dira Xuxen euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoa sortu zenetik, eta ekitaldian gogorarazi dute hizkuntzalari eta informatika ingeniariek elkarlanean sortutako sistema hark "iraultza" ekarri zuela ordenagailu bidez testuak euskaraz idazten dutenontzat.

Hasierako Xuxen sortu zenetik, haren hainbat bertsio sareratu dira (Microsoft Officerako, OpenOffice.org eta LibreOfficerako, web nabigatzaileetarako, Adobe Indesign-erako eta abar), eta, ortografia akatsak detektatzeaz gain, proposamen gramatikalak egiten ere ikasi du Xuxenek.

Halere, informatikan oso azkar gertatzen dira aldaketak, eta programa eta aplikazioak etengabe eguneratzen dira. Gainera, euskaran ere gertatzen dira aldaketak: Euskaltzaindiak arau berriak egiten ditu, hitz berriak sortzen dira eta abar.

Horiek denak kontuan hartuta, Xuxen ere eguneratuz joan da. 2014an, xuxen.eus webgunean txertatu ziren eguneratze guztiak, eta gizartearen esku jarri ziren ordura arteko bertsiorik berrienak. Orain "beste jauzi bat" eman da, eta IXA Taldeak eta Elhuyarrek Xuxen 5 jarri dute sarean, doan deskargatzeko (xuxen.eus/bertsioak).

Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko eta Elhuyar hiztegietako azken aldaketak txertatu dira euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoaren datu basean, eta erregela

Euskera

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ÚLTIMAS NOTICIAS

10:30 Euskadiko Toki Administrazioko Idazkari eta Ikuskatzaileen lan poltsan sartzeko inskripzio epea zabalik da

10:26 Bilboko Udalak arratoiak hiltzeko kanpaina eramango du aste honetan Begoña ingurura

10:16 Clara Usón idazle bartzelonarrak "Valor" eleberria aurkeztuko du Bilbon astelehen honetan

10:13 Merkantzien garraioa behar bezala egiten dela kontrolatuko da aste honetan Bilbon

preside una nueva reunión de coordinación para evaluar la...



COMPARTIR

Atentados en París | Directo



COMPARTIR

Volkswagen cifra en 430.000 los coches de 2016 afectados por las emisiones...



COMPARTIR

## VÍDEOS DESTACADOS

Previsión del tiempo para este lunes 16 de noviembre

Iglesias, el más seguido en Twitter y Rivera en Facebook

Foo Fighters cancela su gira europea por los atentados

Los Guerreros de Xi'an llegan a Sevilla

## LA ACTUALIDAD MÁS VISITADA EN EUROPA PRESS

INTERNACIONAL

**Raqqa: Aviones franceses atacan el bastión de Estado Islámico en Siria**

INTERNACIONAL

**Miles de musulmanes se manifiestan en contra de los atentados terroristas en París**

SOCIEDAD

**La madre de Alberto Pardo, uno de los españoles dado por muerto, confirma que su hijo está vivo**




Portal de actualidad y noticias de la Agencia Europa Press. Publicación digital auditada por OJD.

© 2015 Europa Press. Está expresamente prohibida la redistribución y la redifusión de todo o parte de los contenidos de esta web sin su previo y expreso consenti o.